

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

R24/2016 Ebazpena

Espedienteak: 81/2011, 82/2011, 83/2011, 85/2011, 86/2011, 99/2011, 12/2012, 20/2015 eta 49/2015, metatuak

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 28a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

81/2011 gatazkari eta metatutako beste zortziri buruz. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztu zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka, ondoren azalduko ditugun espediente-zenbakiei eta erakundeei dagokienez, ERAKUNDE TALDEAK, IZEN ARRUNTA izen arrunta gehi dagokion toponimoa duenak, eratutako beste hainbeste sozietate anonimoren helbide fiskalari dagokionez haietako bakoitzean sortutako desadostasuna ebazteko. Espediente horiek, Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako amore-emateko erabakietan oinarrituta, egintza-unitatean metaturik izapidetuko eta ebatziko ditu Arbitraje Batzorde honek. Txostengilea Gabriel Casado Ollero jauna izan da.

I. AURREKARIAK

1.- 2011ko apirilaren 19an eta urriaren 20a, 2012ko otsailaren 29an eta martxoaren 10ean eta 2015eko urriaren 6an, Arbitraje Batzordeko erregistroan sartu ziren Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka (BFA) agertutako honako gatazka hauek:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

- 2011ko apirilaren 19an 81/2011 (IZEN ARRUNTA 1. TOPONIMOA), 82/2011 (IZEN ARRUNTA 2. TOPONIMOA), 83/2011 (IZEN ARRUNTA 3. TOPONIMOA), 85/2011 (IZEN ARRUNTA 4. TOPONIMOA) eta 86/2011 (IZEN ARRUNTA 5. TOPONIMOA) gatazkak
- 2011ko urriaren 20an 99/2011 (IZEN ARRUNTA 6. TOPONIMOA) gatazka
- 2012ko otsailaren 29an 12/2012 (IZEN ARRUNTA 7. TOPONIMOA) gatazka
- 2015eko martxoaren 10ean 20/2015 (IZEN ARRUNTA 8. TOPONIMOA) gatazka
- 2015eko urriaren 6an 49/2015 (IZEN ARRUNTA 9. TOPONIMOA) gatazka.

Aurreko gatazka guztietan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean xedatutakoarekin bat etorritik, IZEN ARRUNTA duten erakunde horien helbide fiskala Bizkaian dago, eratu zirenetik gatazkak hasi dituen administrazioak kasuan-kasuan zehaztutako egunera arte.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen hainbat idazkiren bidez (Arbitraje Batzordean 2016ko urriaren 18an aurkeztuta), azaldu zuten Ogasuneko zuzendari nagusiak 2016ko urriaren 17an Bizkaiko Foru Aldundiak honako gatazka hauei amore emate erabaki zuela banaka: 81/2011 (IZEN ARRUNTA 1. TOPONIMOA), 82/2011 (IZEN ARRUNTA 2. TOPONIMOA), 83/2011 (IZEN ARRUNTA 3. TOPONIMOA), 85/2011 (IZEN ARRUNTA 4. TOPONIMOA) eta 86/2011 (IZEN ARRUNTA 5. TOPONIMOA), (IZEN ARRUNTA 6. TOPONIMOA) ,12/2012 (IZEN ARRUNTA 7. TOPONIMOA), 20/2015 (IZEN ARRUNTA 8. TOPONIMOA) eta 49/2015 (IZEN ARRUNTA 9. TOPONIMOA), hala, gatazka bakoitzean argudiatu du «haren xedea gerora galdu dela, honako honen oinarri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

berbera duten kasuetan desadostasuna ebatzi baitute Arbitraje Batzordeak (...) eta Auzitegi Gorenak», eta eskatu du, azaldutakoa oinarri hartuta, Arbitraje Batzordeak amaitutzat jotzea gatazka horiek guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren amore-emateagatik.

3.- Arbitraje Batzordeak, 2016ko azaroaren 4ko bilkuran, bere Erregelamenduaren 8. artikularekin bat etorritik (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen osagarritasuna ezartzen du), eta aipaturako lege-testuaren 73. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (horren arabera prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, hasiera emateko modua edozein izanik ere, oinarri bera edo lotura hertsia duen beste batzuetara metatzea xedatu ahal izango du, aipaturako izapidean ebatzi gabe gelditzen diren gatazkak onartu ondoren), honako espediente hauetan baldintzak horiek betetzen direla ebatzi zuen: 81/2011 (IZEN ARRUNTA 1. TOPONIMOA), 82/2011 (IZEN ARRUNTA 2. TOPONIMOA), 83/2011 (IZEN ARRUNTA 3. TOPONIMOA), 85/2011 (IZEN ARRUNTA 4. TOPONIMOA) eta 86/2011 (IZEN ARRUNTA 5. TOPONIMOA), (IZEN ARRUNTA 6. TOPONIMOA) ,12/2012 (IZEN ARRUNTA 7. TOPONIMOA), 20/2015 (IZEN ARRUNTA 8. TOPONIMOA) eta 49/2015 (IZEN ARRUNTA 9. TOPONIMOA)); hori dela eta, horiek metatzea erabaki zuen, eta horren berri eman zien aurrez aurre zeuden bi administrazioei eta gatazka bakoitzaren xede ziren erakundeei.

4.- Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik izapidetu da prozedura.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

II.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka 81/2011 gatazkan eta metatutako gainerakoetan agertutako auzi bakarra IZEN ARRUNTA izen arrunta duen ERAKUNDE-TALDEAK eraturako sozietate anonimo ezberdinen helbide fiskala zehazteari dagokio; halaber, gatazkak bultzatu dituen Estatuko Zerga Administrazioaren iritziz horien guztien helbide fiskala Bizkaian dago eratu zirenez gerotzik.

2.- Bizkaiko Foru-ogasuneko Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariorde nagusiak Ogasuneko zuzendari nagusiari aurkeztutako amore-emateko proposamen bakoitzean adierazi du 81/2011 gatazkaren xedea, metatutako gainerako guztietan bezalaxe, «31/2010, 3/2011, 4/2011 eta 5/2011 gatazkak eragin zituen bezalakoa da funtsean (ERAKUNDE-TALDEAREN haize-parkeko sozietateen helbide fiskalari buruzkoak ziren horiek), eta horiek guztiak ebatzi zituzten (...) Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren nahia onartuz eta, ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundi honek defendatutako oinarrien aurka. Administrazioak –gainera– beste horrenbeste administrazioarekiko auzi-errekurtso aurkeztu zituen Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren aurrean lau arbitraje-gatazka horiei administrazio-bidean azkena eman zieten Arbitraje Batzordearen lau ebazpenen aurka, eta 2015eko ekainaren 18ko eta abenduaren 15eko epaien bidez, jarritako errekurtsoak ezestea eta Arbitraje Batzordearen ebazpenak baieztatzea erabaki zuen Auzitegi Gorenak. Hortaz, bide judizialean behin betiko ebatzita eta gauza epaitutzat gelditu dira jada arbitraje-gatazka honetan ere agertutako auziak; hori dela eta, ez du zentzurik haien indarrari eustekak. Hori horrela izanik –ondorioztatzen du–, egokia da Bizkaiko Foru Aldundiak piztutako gatazkari amore ematea.»

3.- Kasu bakoitzean aurkaratutako zerga-administrazioak gatazkaren «jabe» bakarrak izan arren –hau da, horiek gain daude go planteatzeko eskumena,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

helburuari uko egiteko aukera edo proposatzen duen administrazioaren aurrean amore emateko aukera eta, finean, Arbitraje Batzordeak ebatzi aurretik irtenbidea adosteko ardura–, azaldutako guztia ikusirik, gatazkak eragin zituen arazoa judizialki eta behin betiko ebatzi ondoren (aurrekontu berberei buruz, hein handi batean bat datozen beste gatazka batzuk eragin zituen bera), ez zegoen arrazoi juridikorik Bizkaiko Foru Aldundiak pasiboki liskarra mantentzeko. Hori dela eta, Arbitraje Batzorde honen ebazpenek hemen ebazten ari garenaren oinarri bera duten gatazketan hartutako irmotasunagatik (Auzitegi Gorenak baieztatuta), eta horrekin batera, administrazio publikoen arteko harremanetan eskatu beharreko koherentzia, fede on eta leialtasuneko betebeharrengatik, gatazka horiek aurkeztu zizkieten administrazioak horren arabera jokatu beharra zuen.

Auziaren gorabeherak ikusita, amore ematea izan da Bizkaiko Foru Aldundiak horren arabera jarduteko modua, izan ere, 81/2011 gatazkan eta metatutako gainerakoetan agertutako auziak bide judizialean behin betiko ebatzita eta epaitutako gauzaren izaerarekin gelditu direnez, «ez du zentzurik horiek indarrean atxikitzeak».

Horri gehitu behar zaio ezen, Arbitraje Batzordearen erabaki edo ebazpen irmo baten betearazpen eraginkorrean, gatazka bere alde ebatzi duten administrazioaren eta, hala badagokio, interesdun partikularren interes naturalarekin batera, badagoela ageriko interes juridikoa Ekonomia Itunaren funtzionamendu egokiari lotua. Hortaz, kontzertuaren erantzule diren administrazio guztiei eragiten die horrek, eta, gainera, fede onaren eta erakunde-leialtasunaren eskakizunei ere badago hertsiki lotuta.

4.- Espedienteek eragindako erakundeetako zerga-administrazioekiko harremanetako ziurtasunak eta segurtasun juridikoak, halaber, zentzurik gabe luzatu behar ez diren gatazkak amaitzea dakartela kontuan izan behar da,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

halaber. Auzitegi Gorenak adierazi zuen zergadunen helbideratzeari buruzko desadostasun administratiboetan, tartean sartuta dauden Administrazioen eskumen-egoera eragiteaz gain, zergadunek Administrazio fiskalarekin duten harremanetan ziurtasuna izateko duten eskubidea bereziki eragiten dela, zergadunaren helbide fiskala zehazteak bere zerga-egoerarekiko duen garrantzia eta erregimen fiskal ezberdinak elkarrekin bizi diren gurea bezalako zerga-sisteman horrek duen pisu berezia ikusita (Zfr; 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 256/2012, 4. OJ).

5.- Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1766/2007 Errege Dekretuaren 8.artikulan xedatutakoaren arabera “Arbitraje Batzordearen deialdiak, eraketa batzarrak, ebazpenak hartzeko modua, funtzionamendu-erregimena eta prozedurari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa beteko da. Azken erreferentzia hori ulertu beharko da urriaren 1eko 39/2015 azken Legearen xedapenari egiten zaiola, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari, bere Xedapen indargabetzaile bakarrean, 3. Atalean beren-beregi ezarritakoarekin bat etorritz, joan den urriaren 2tik indarrean dagoena (Azken xedapenetatik zazpigarrena). Hala ere, 1992/130 Legearen Bigarren xedapen iragankorrak zein hirugarren xedapen gehigarriak diotenaren arabera, "honako Lege hau indarrean sartu baino lehenago hasitako prozedurei ezin izango zaie berau aplikatu eta aurreko araudiari jarraitu beharko dio” beraz, prozedura honi aplikatu dakioken araudia aipatutako lehendabiziko arauetan aurreikusitakoa izaten jarraitzen du.

6.- Nahiz eta amore-ematearen figura 30/1992 Legean aurreikusita ez dagoen (horretara igortzen du Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikulua haren jarduteko araubideari dagokion guztirako), urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan ez dagoen moduan, atzera ematea bai dagoela, ordea, prozedurari amaiera emateko modutzat (30/1992 Legearen 90.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

eta 91. artikulua) [39/2015 Legearen 94. artikuluan erregulazio berarekin atxikita], eta Batzorde honek berau jada aplikatu du gatazkaren jomuga izandako administrazioak administrazio sustatzailearen asmoari berariaz amore eman zion prozeduretan (horrela gertatu zen R3/2010 Ebazpenean, abenduaren 20koan, 34/2008 espedientea; R16/2011 Ebazpenean, maiatzaren 26koan, 25/2010 espedientea; R14/2012 Ebazpena, urriaren 29koa, 24/2012 espedientea; R8/2014 Ebazpena, abenduaren 19koan, metatutako 90/2011 eta 96/2011 espedienteak; R4/2015 Ebazpenean, martxoaren 2koan, 20/2012 espedientea, R13/2015 Ebazpenean, uztailaren 16koan, 16/2014 espedientea; R4/2016 Ebazpenean, apirilaren 12koan, 08/2011 espedientea, R12/2016 Ebazpenean, ekainaren 20koan, 9/2011 espedientea eta metatuak ekainaren 28ko R17/2016 32/2011 espedientea eta metatuak, eta, azkenik, azaroaren 4ko R20/2016, 43/2011 espedientea eta metatuak), eta arrazoi beragatik aplikatu behar dugu hori BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakitako amore-emateetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak jarritako gatazkei erabakietakoetan, alegia.

7.- Hala bada, bi administrazioen artean IZEN KOMUNEKO aipatutako sozietateen helbideratzeari dagokionez luze egondako desadostasuna gerora desagertzea ekarriko du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak proposatutako helbide fiskalaren zuzenketarekin Bizkaiko Foru Aldundia ados agertzeak (Ekonomia Itunaren 43.Sei artikulua eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 3.c) artikulua). Bestela esanda, BFAk amore emateak «prozeduraren xedea gerora desagertzea» dakar (39/1992 Legearen 42.1 artikulua), eta amaiera ematen dio –materialki amaiturik– Arbitraje Batzordearen aurrean agertutako gatazkari (30/1992 Legearen 87. artikulua).

Horrela bada, administrazioko gatazka edo desadostasuna arbitraje-prozeduraren eta Batzordeak hori ebazteko duen eskumenaren premisa denez, liskarra gerora desagertzeak gatazkaren xedea eta gatazka bera materialki

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

desagertzea dakar; eta prozedurari, Ekonomia Itunaren 67. artikulua, jarduneko egiazko aukerak oinarri hartuta, ezartzen dion arintasunarekin amaiera ematea beste eginkizunik ez du Batzorde honek.

8.- Prozedura guztiak berariazko ebazpen bidez ebazteko betebeharra dagoenez (30/1992 Legearen 42.1 artikulua), xede horretarako horietan emandako ebazpena «gertatutako ingurumariak adieraztea izango da (...), betiere jazotako egitateak eta aplikatu daitezkeen arauak zehaztuta» (30/1992 Legearen 42.1 artikulua); eta Arbitraje Batzorde hau «atzera ematea edo uko egitea erabat onartzera eta prozedura amaitutzat jotzera mugatu behar da (...)» (30/1992 Legearen 91.2 artikulua).

Aurrekoari lotuta, bestalde, galdatzekoa da egintza bakar batean erabaki daitezela izaeratik aldi berean bultzatzea onartzen duten eta ondoz ondo bete behar ez diren izapideak, 30/1992 Legearen 75.1 artikulua agintzen duenaren arabera [agindu horri, administrazioa bakuntzearen printzipioarekin bat etorritik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 72.1 artikulua ere eutsi dio]. Horregatik, 2016ko azaroaren 4ko aurreko bilkuran, Arbitraje Batzordeak amore emandako espediente guztiak metatzea erabaki zuen egintza bakarrean onartzeko soilik, eta horiei guztiei bilkura honetan bertan amaiera emateko, baina ez banaka, eskuragarri dauden bitartekoen bidez, Arbitraje Batzorde honek Ekonomia Itunaren 67. artikuluan agindutako ekonomia, arintasun eta eraginkortasunez ebatz zitzakeen modu bakarrean baizik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>81/2011 eta metatuak</i>	<i>R24/2016</i>	<i>28-12-2016</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

1.- 81/2011, 82/2011, 83/2011, 85/2011, 86/2011, 99/2011, 12/2015, 20/2015, eta 49/201 gatazka metatuak amaitzea, Bizkaiko Foru Aldundiak ondoz ondo erabakitako amore-emateak guztiz onarturik.

2.- Erabaki honen berri ematea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta aipatutako gatazkek eragindako erakundeei.